



EUSKARAREN . LANGILE . PROFESIONALEN . ELKARTEA

EUSKAL LITERATUR SORTZAILEEN EGOERA FISKALARI BURUZKO GOGOETA ETA ESKARIAK

1. SARRERA

Kultur arloko sortzaileek eguneroko ogia dute ziurgabetasuna eta zaurgarritasuna. Pandemia garaian agerian geratu da erabat, kultur eragile publiko zein pribatuek ere nabarmendu izan duten bezala, baina prekaritatearen birusa aspaldiko lagun dute sorkuntza lanbide bihurtzeko apostua egin dutenek. Autonomo diren sortzaile eta interpretariak, bereziki. “Oso zaila izaten da karrera artistikoak finkatzea, eta, beraz, artista ospetsuenek ere ezin dute sorkuntzan jardun beste diru-sarrera iturri batzuk izan gabe”, dio Euskal Kulturaren Behatokiaren *Karrera artistikoen profesionalizazioa* txostenak (2020). Euskaraz eta euskaratik sortzea erabaki dutenen kasuan, zeresanik ez: irauteko ahalegin betean dagoen hiztun komunitate txiki bateko parte dira, milioika hartzaile potentzial eta promozio eta zabalkunde egitura publiko zein pribatu oso indartsuko kultur sistema biren olatupean ez hondoratzeko ahaleginean.

Hala, pandemia aurretik hasi ziren hainbat euskal egile eta interpretari biltzen, esperientziak, beharrak eta ezinak partekatzen. Hortik sortu da LANARTEA Euskararen Langile Profesionalen Elkarte: dozenaka urteko esperientzia eta ibilbidea izanik ere prekarietatea onartu beste aukerarik ez ikustetik.

Azken hilabeteetan, LANARTEA lankidetzarako bideak eraikitzen saiatu da euskal kultur arloko profesionalak biltzen dituzten elkarte ezberdinekin. Hortik ernetu da eskaera honen hazia: Bertsozale Elkarte, EIE Euskal Idazleen

Elkartea, EIZIE Euzkal Idazle eta Interpretarien Elkarte eta Galtzagorri Elkartearekin abiatutako dinamika batetik; amets, behar eta testuinguru komunak izatetik. Badakigu amets, behar eta testuinguru horiek beste askok ere partekatzen dituztela. Horiekin ere hasia da LANARTEA lanean, baina honako eskaera hau idazleei, itzultzaileei eta bertsolariei dagokie.

“Euskal literatur sortzaileak” darabilgunean, beraz, idazleez, itzultzaileez eta bertsolariez (ahozko literaturan sortzaile diren aldetik) ari gara zehazki. Hemen aipagai ditugun arazoetako ugari beste diziplinetako sortzaileek ere badituztela badakigun arren.

Arazo horietako bati heltzen hasteko eskaera da hau: fiskalitateari.

Artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako etorkizuneko aukerak (Kulturaren Euskal Behatokia, 2020) txostenean bertan jasota dago: “Artisten eta kultura-arloko profesionalen lana irregularra da denboran. (...) Hortaz, desoreka dago kobrantzaren eta tributatzeko betebeharraren artean, azken hori diru-sarrera egonkorretarako pentsatuta dagoelako”.

Espainiako Diputatuen Kongresuan 2018an onetsi zen Artistaren Estatutuari buruzko proposamenaren azterketa bat da aipatu berri dugun txostena. Euskal Artistaren estatutuaz mintzatu da Eusko Jaurlaritza. Euskal artisten errealitate espezifikoari erantzungo dion legedi bat sustatu nahi du LANARTEAk, artistak erdigunean jarriz.

Beren zaurgarritasun egoera zuzendu nahi dute sortzaileek, eta horretarako ahala eta nahia daukaten erakunde publiko guztiei luzatuko die eskua LANARTEAk, euskaraz eta euskaratik sortzen duten profesionalentzako, euskal kultur sistema osoarentzako, eta, ondorioz, gizarte osoarentzako onuragarria izango delako. Eusko Jaurlaritza da lehena asmo hauen berri jasotzen.

Alor asko daude jorratzeko, korapilo asko askatzeko. Honako hau elkarlan emankor baterako lehen urratsak egiten hasteko abiapuntu gisa planteatzen du elkarteak, beraz. Eta lehen urratsa Eusko Jaurlaritzari begira egin du, gure kultur sisteman daukan pisu espezifikoa eta hiru ogasunekin egin dezakeen bitartekaritza lana gogoan.

2. ARAZOA

Euskal literatur sortzaileen egoera fiskala nahasia eta zaila da, esan bezala. Aholkulari zerbitzuetako adituek zer aholkatu ez jakiteraino; ogasunek lege berdinen gainean interpretazio ezberdinak egiteraino. Hau arazo bilakatu da sortzaileentzat, eta ez txikia, gauzak behar bezala egin nahi izan eta nola egin ez jakiteraino; aholkularitza zerbitzuen bidez arituta ere, erabateko lasaitasuna ez izateraino.

Bertsolarien egoera paradigmaticoa da: ez dute beren jardun ekonomikoa erregistratzeko epigraferik ere, eta epigrafe dantza batean aritu ohi da bertsolari bakoitza. Baita idazle eta itzultzaile gehienak ere.

Euskal literatur sortzaile gehien-gehienek -beste diziplinetakoek bezalaxe- ezin dute lanbide bakartzat hartu sorkuntza, eta beste aktibitate batzuekin osatu ohi dute jardun hori. Gaur egun, gainera, Euskal Herria bost fiskalitate ezberdinetan banatua dago -Nafarroakoa, Gipuzkoakoa, Bizkaikoa, Arabakoa eta, Iparraldeari dagokionez, Frantziakoa-, eta ogasun bakoitzak bere berezitasun, irizpide eta ñabardurak ditu. Segidan azalduko dugun egoera, zehazki, Hego Euskal Herriko lau ogasunen ikuspegi “orokorrari” buruzkoa litzateke:

2.1. Euskal literatur sortzaileen egoera fiskala.

Euren egoera fiskalari begiratuta, hiru multzo nagusi nabarmentzen dira euskal literatur sortzaileak:

a) Autonomoak direnak eta fakturatzen dutenak. Bi edo hiru epigrafetan daude batzuk eta zalantzak dituzte BEZarekin.

b) Autonomoak ez direnak. Beste aktibitate batzuetan lan egiten dute batzuek; langabezian daude besteak. Jardun puntuala eginez gero, ez dago garbi autonomo izan gabe faktura egiteko aukera dagoen edo ez: Espainiako Gizarte Segurantzak dio jardun bat bera ere ezin dela egin alta eman gabe, baina bada

epaitegietako ebazpenik dioena gutxieneko urteko soldataren langa gainditzera iristen ez diren jardun *marginalek* badutela aukera hori. Epai horrek ez du zehazten zer den marginala, baina, edo zein den ekitaldi kopuruen muga.

c) Erretiroa hartuta daukatena, baina sorkuntza aktibitatea mantentzen dutena.

2.2. Galdera komuna

Azaldutako hiru multzoak batzen dituen galdera bat bada: zein aktibitatek dute BEZa; eta zeinek ez? Erantzun garbia ematea ez da erraza. Aktibitatez aktibitate, hauek dira ogasun departamenduen iritziak:

a) Itzulpenak:

- Hitzez hitzeko itzulpenak, itzulpen teknikoak (zientzia, historia...): %21 BEZ

- Ahozko itzulpenak: %21 BEZ

- Itzulpen literarioak (poesia, nobela, narrazioa, saiakera...), moldaketa eskatzen dutenak: BEZik gabe.

- Telesailen itzulketak, itzultzailearen ekarpen propioa edo moldaketa eskatzen dutenean: BEZik gabe.

b) Idazle lanak:

- Egile eskubideak: BEZik gabe.

- Erreportajeak eta zutabeak aldizkari edo egunkarian argitaratuak: BEZik gabe.

- Besteentzako liburuak idaztea: %21eko BEZarekin.

c) Bertso saioak:

-Bertsolarien jarduna BEZa ordaintzetik salbuetsita dago, bat-bateko sormen lana den aldetik. Ondorengo legean oinarritzen gara hau esateko: 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 20 artikuluko 26. atalean, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duena:

“Artista plastikoek, idazleek, egunkari eta aldizkarietako laguntzaile literario, grafiko eta fotografikoek, musikagileek, antzerki eta argumentu obren autoreek, ikusentzunezko obren egokitzapen, gidoi eta elkarrizketen egileek, itzultzaileek eta egokitzzaileek egindako lanbide zerbitzuak, kontraprestazio gisa autore eskubideak dituztenak barne”.

-Autonomo bezala alta emanda dauden bertsolariekin errazago moldatu izan da antolatzailea, faktura zuzena eginda, baina autonomo ez direnak Lanku bidez kontratatzea da aukera bakarra, eta horrek %21eko BEZa eransten dio gastuari.

d) Hitzaldiak:

- Eskola esparruan edo formazio reglatuaren baitan: BEZik gabe.
- Bestelako esparruetan: %21eko BEZarekin

e) Hezkuntza:

- Formazio arautua: BEZik ez.- Formazio ez arautua: %21eko BEZarekin
- Moderatzaile bezala egindako lanak %21 BEZarekin.

3. KONPONBIDERAKO PROPOSAMEN ZEHATZA

Sortzaile askok eta askok zerrendatu berri ditugun aktibitate horietako bat, bi eta hiru baino gehiago egin behar izaten dituzte bizirauteko, aurrerago esan dugun bezala. BEZaren erregularizazioak edo ogasunen irizpideek daudenean segitu bitartean, “fiskalitatean adituak” izan beharko lukete sortzaileek gauzak ongi egiten asmatzeko, eta sortzaileak sortzen dira aditu.

Literatur sortzaileentzako laguntza oinarri-oinarrizkoa litzateke egoera hau erraztea eta sinplifikatzea, eta bi neurri proposatzen ditugu horretarako:

3.1. “Aktibitate osagarri” kontzeptua erabiltzea.

BEZaren salbuespena arautzen duen epigrafean ogasunek irizpide bezala onartuko balute sortzaile literarioek egiten dituzten gainerako aktibitateak

aktibitate osagarri direla, goian aipaturiko aktibitate guztiak **BEZa ordaintzetik salbuetsiak** geratuko lirатеke. Euskal literatur sortzaileen aktibitate ekonomikoen zenbatekoa kontuan hartuta, ogasunei oso diru galera txikia ekarriko lieke aldaketak, baina aurrerapauso handia litzateke sortzaileontzako, eta, ondorioz, kultur sistema osoarentzako.

Aurrerago aipatu dugun Gipuzkoako Aldundiaren 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 20 artikuluko 26. atala hor dago, adibidez, araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzeko bide gisa.

Ogasunen eskumenak erabiliz literatura sortzaileen aktibitate guztiak (hitzaldiak, itzulpenak, idazle lan guztiak...) horren osagarri direla onartuko balitz, denak BEZa ordaintzetik salbuetsiak geratuko lirатеke.

3.2 Kopuru baterainoko diru sarrerak IAEn alta eman gabe eta fakturatu beharrik gabe kobratu ahal izatea.

Aipatu ditugun orain arteko BEZaren inguruko arazoei TICKET BAI sistemarenak gehituko zaizkie orain. Oso zaila izango da sortzaileak sistema horretara egokitzea. Jar gaitezen, esaterako, erretiroa hartua daukan pentsiodun baten tokian, liburu bat idatzi eta esparru esberdinetan hiru hitzaldi eman beharko dituen...

Biziraupenerako urrats handia litzateke literatur sortzaileentzat irizpide orokor hau ezartzea: Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarainoko urteko diru sarrera profesionalak **errenta aitorpenean deklaratzeari, IAEn alta eman eta fakturazio sistematik erabili beharrik gabe.**

Ogasunek diru sarrera berdinak izango lituzkete, baina burokrazia eta fiskalitate ezagutzen beharra asko murrizutko litzateke sortzaileentzat.

4. ALDAKETA, LEGEA ALDATU GABE

Proposatu ditugun bi neurri horiek lege aldaketa beharrik gabe atera daitezke aurrera. Ogasun departamenduen irizpide aldaketa bat nahikoa litzateke -beste hainbat kasutan egin izan da; zenbait kiroletako profesionalenean,

esaterako-, egoera oso zaugarrian dagoen sektore baten egunerokoa asko hobetzeko.